



BEASAINDIK

ARGITARATZAILEA: BEASAINGO UDALA • LG SS-00403-2016


Beasain berdintasunean aurrera: oraina eta etorkizuna elkarrekin eraikitzen

*El Consejo de Igualdad de Beasain,
como espacio de encuentro de agentes,
colectivos feministas y Ayuntamiento,
presenta una programación conjunta
con motivo del 8 de marzo*



Nueva convocatoria
de ayudas al alquiler
de vivienda

06



Tokiko merkataritzan
gazteen kontsumoa
sustatzeko bonuen
programa, abian

07



★
Zuen
alkatea

Leire Artola Ugalde
BEASAINGO ALKATEA

Beasain, berdintasunaren eta errespetuaren topagune

Martxoaren 8a ez da aldarrikapen hutserako eguna; gure gizarateak elkarrekin egindako bidearen eta oraindik egiteko dugunaren isla da. Alkate gisa, egun honetan gure herriak berdintasun errealekin duen konpromiso irmoa berretsi nahi dut. Printzipio hau ez da aukera bat, gure demokraziaren zutabea eta bizikidetzat aske baten oinarritzko bermea baizik.

Gaur egun, kezkaz ikusten dugu nola gure eguneroko espazioetan edo sare sozialetan berdintasunaren inguruko nahasmendua sortzen saiatzen diren diskurtso batzuk agertu diren. Beasaindik, ordea, argi hitz egin nahi dugu: lortutako eskubideak guztionak dira, eta horiek babestea gure betebeharra da. Ez dugu onartuko atzerapausorik berdintasunaren bidean, ezta indarkeria matxistaren existentzia zalantzan jartzerik ere.

Un compromiso compartido por la igualdad

En este 8 de marzo, reafirmamos desde Beasain nuestra apuesta por una igualdad real y efectiva. Más allá de ideologías, la igualdad es un derecho humano que garantiza una convivencia justa y democrática. Frente a las corrientes que intentan generar confusión o cuestionar los avances logrados, nuestro municipio se mantiene firme en la defensa de los derechos de todas las mujeres.

Gure indarra elkarlanean dago. Horregatik, Udaletik balioan jarri nahi dugu Berdintasun kontseiluaren bidez, talde feminista eta elkarteekin, Beasaingo Asanblada Feministarekin eta Asmuberekin adibidez, dugun harreman estua. Elkarrekin, errespetuan eta duintasunean oinarritutako herria eraikitzen jarraituko dugu, estereotipoak baztertuz eta emakumeen ahotsa entzunez.

Guztiok gonbidatzen zaituztet Martxoaren 8ko ekintzetan parte hartzera. Beasain hobeago bat eraikitzea guztion eskutan dagoelako.

Gora Martxoak 8!



Beasain se une por la igualdad real

El Ayuntamiento de Beasain, a través del Consejo de Igualdad como punto de encuentro de todos los agentes y colectivos feministas, presenta una programación conjunta para este 8M. Esta colaboración con la Asamblea Feminista y grupos locales busca fortalecer los valores de respeto y convivencia frente a los discursos que cuestionan la igualdad o niegan la violencia machista.

Se reafirma que la igualdad es un derecho humano universal y un pilar de nuestra democracia. Entre los actos destacan la exposición en Igartzta (5 de marzo), el teatro del día 11 y el concierto coral del 18, además de las movilizaciones centrales del propio 8 de marzo. El objetivo es claro: proteger los recursos y políticas de igualdad para seguir avanzando, unidos y unidas, hacia una sociedad libre de discriminación.



Martxoak 8 EMAKUMEEN

NAZIOARTEKO EGUNA

Berdintasuna, elkarlanetik eraikitako eskubidea



OTSAILA
2026

★ Aurtengo aldarrikapenek berdintasunaren aurkako diskurtsoen aurrean mezu argi eta eraikitzailea zabaltzea dute helburu. El objetivo es proteger y reforzar las políticas de igualdad para avanzar hacia una sociedad libre de discriminación.

Beasaingo Udalak, Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan, egitarau bateratua prestatu du Berdintasun Kontseiluko kide diren herriko eragileekin batera.

Beasaingo Asanblada Feministarekin, Asmuberekin eta eskualdeko taldeekin osatutako lankidetzak hau bizikidetzarako aliantza bat da, gure eguneroko espazioetan balio feministak babesteko eta herritar guztiak berdintasunean oinarritutako gizarte batean hezteko.

Udalak argi utzi nahi du berdintasun-politikak sustatzea eta horretarako egiturak zaintzea lehenta-

sun dela, lortutako eskubideetan atzerapausorik eman gabe aurrera egiteko.

Aurtengo aldarrikapenek fokua jarri nahi dute (berdintasunaren mezua) feminismoa zokoratu eta indarkeria matxista zalantzan jarri nahi duten diskurtsoen aurrean mezu argi eta eraikitzailea zabaltzean. Beasaingo Udalaren eta talde feministen arteko harreman estuak informazio faltsuak desakibatatzeko eta feminismoaren kontrako diskurtso erreakzionarioak desmuntatzeko balio du.

Finean, gogoraraziz, Berdintasuna eraikitzen ari den prozesu bizia

dela eta erantzukizuna kolektiboa dela, guztion etengabeko konpromisoa eskatzen duena, emakumeek askatasunez eta duintasunez bizitzeko aukera izan dezaten.

Elkarlan horren fruitu dira datozen asteetan burutuko diren ekintzak, non emakumeen ahotsa eta sormena erdigunean jarriko diren: Euskal udalek egiten duten deiarri jarraituz, herritar guztiak gonbidatzen ditugu batuta eta elkartuta egotera.



BEASAINDIK

03

— martxoak 8

Martxoaren 5ean

Erakusketaren **inaugurazioa Igartzan, 18:00etan** (martxoaren 22ra arte zabalik).

Martxoaren 6an

RedNudes antzezlan
12:30tan Usurben, Besasaingo DBH3ko ikasleei zuzendua. Gaia: Indarkeria digitala eta kontsentimenduaren.

Martxoaren 7an

Wikiemakumeok I. Topaketa 11:00tan Igartzako Jauregian + **13:00tan Emakumeen presentzia** Igartzan Bisita gidatua + Bazkaria norberaren kontura.

Martxoaren 8an:

* **00:00** → "Kaleak eta gauak gureak dira" manifa, Goierriko Gazte Feministen eskutik. Erauskin plazatik Bideluzera.

* **11:30** → Denok Ordiziara! Eskualdeko manifara elkarrekin joateko bilgunea, Erauskin plazan.

* **12:30** → Goierriko Koordinadora Feministak deitua Eskualdeko manifestazioa | Ordizian

* **15:00** → Plaza azpian Bazkari Feminista; eta ondoren guateke feminista: bingo musikatua, jolasak...Tiketak salgai Arranon eta Irizar Etxean.

Martxoaren 11n:

Confesiones en una peluquería antzezlan, **18:00etan**, estereotipoak gainditzeko eta hausnarketa sustatzeko.

Martxoaren 18an:

Asmube abesbatzaren emanaldia, 18:00etan.

Martxoaren 26an:

Usurben 20:30 Urrup Antzerki taldearen eskutik **Segunda Convocatoria** antzezlan. Umorez eta ironiaz gizartea, eta emakumeak bereziki, astintzen dituzten arazo eta kezak isladatzen dituzte.

ALEA
#48



Rexcatering martxan: elikagaiak partekatu, herria indartu

Banaketa-makina berriak elikagai soberakinak baliabide bihurtzen ditu, ikasleen parte-hartzearekin eta tokiko sare zabal baten elkarlanari esker

Beasainen Rexcatering zerbitzua dagoeneko errealitate operatiboa da. Loinazko San Martin plazako arkupeetan jarritako hozkailu adimenduna martxan da, eta jantoki kolektiboetan sortzen diren anoak egunero bildu, ontziratuta eta herritarren eskura jartzen dira, 24 orduz eta doan. Ideiatik ekintzara igaro da proiektua: soberakina zirkuituan sartzen da berriro, alferrik gal ez dadin.

Makina bat, kate oso bat martxan

Sistemaren erdigunean banaketa-makina dago, baina atzean antolaketa oso bat dabil. Ikasle-teeetako eta egoitzako jangeletan egoera onean dauden elikagaiak jasotzen dira, segurtasun eta higie-ne berme guztiekin ontziratuta, eta ondoren hozkailu adimendu-

nean kokatzen dira. Prozesu simple eta eraginkorra da, estigmatik gabea eta edonorentzat irisgarria.

Helburua ez da soilik janaria ematea, baizik eta xahuketa saihestu eta baliabideak arduraz kudeatzea.

Ikasleak, protagonista

Proiektuak dimentsio pedagogiko nabarmena du. Ikasleek eurek parte hartzen dute soberakinak prestatzen eta makinan jartzen, elikagaien balioa eta kontsumo arduratsua praktikatik ikasiz. Horrela, jasagarritasuna ez da diskurtso hutsa, eguneroko keinu konkretua baizik.

Belaunaldi berrien inplikazioa da ekimenaren indargune nagusieta-ko bat.

Lankidetzaren sendoa

Rexcatering ez litzateke posible izango eragileen arteko koordina-ziorik gabe. Udalaren gidaritza-pean, Zero Zabor Fundazioa, to-kiko ikastetxeak, Arangoiti egoitza eta kale hezitzaileak sare berean ari dira lanean, bilketa, garraioa eta banaketa antolatuz. Elikagaien berreskuratzea eta gizarte-arloko esku-hartzea eskutik doaz.

Lankidetzaren publiko-komunitario horri esker, Beasain erreferente bihurtu da tokiko elikagai-xahuke-taren aurkako borrokan.



Apustu estrategikoa, eguneroko eragina

Ekimenak hiru dimentsio uztartzen ditu: ingurumenekoa (hondakin gutxiago), soziala (elkartasuna eta sarbide unibertsala) eta ekonomikoa (baliabideen aprobetxamendu hobea). Udalaren parte-hartze zuzena funtsezkoa izan da, ez bakarrik bultzatzeko, baita eguneroko funtzionamenduan aritzeko ere.

Azken batean, makina betetzen den bakoitzean, komunitatea ere betetzen da: partekatuz, zainduz eta elkarri eutsiz.

★ Ideiatik ekintzara igaro da proiektua: soberakina zirkuituan sartzen da berriro, alferrik gal ez dadin. Un modelo local, pionero y con impacto ambiental, social y educativo.

Rexcatering, en marcha: alimentos recuperados al servicio de la sociedad

Beasain ya cuenta con la máquina inteligente de Rexcatering en funcionamiento continuo. Los excedentes de comedores escolares y de Arangoiti egoitza se recogen, envasan y se ofrecen gratuitamente a la ciudadanía durante todo el día. El alumnado participa activamente en el proceso y, junto al Ayuntamiento, Zero Zabor Fundazioa y agentes sociales, conforma una red colaborativa que convierte el desperdicio en recurso. Un modelo local, pionero y con impacto ambiental, social y educativo.



Etxebizitzak alokairuan hartzeko udalaren dirulaguntzak

laburrak

06

BEASAINDIK



Beasaingo Udalak etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzak eskatzeko aukera ireki du. Dirulaguntza hauen helburua gazteei, mugikortasun murriztua duten pertsonari eta guraso bakarreko familiei etxebizitza alokatzeko aukera erraztea da, eta aldi berean, udalerriko etxe hutsen merkatua sustatzea.

Onuradunek hainbat baldintza bete behar dituzte besteak beste gutxienez urtebetez Beasainen erroldatuta egotea. Eskerak eta informazio gehiago IGunean aurrez aurre (aurretiko txanda eskatuta) edo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez aurkeztu daitezke, irailaren 30era arte.

Laguntzak hiru modalitatetan banatzen dira:

18 eta 35 urte bitarteko gazteentzat.

Mugikortasun urria aitortua duten pertsonentzat.

Guraso bakarreko familientzat.



ALEA
#48

Ayudas municipales para el alquiler de vivienda

El Ayuntamiento de Beasain ha puesto en marcha una nueva convocatoria de ayudas al alquiler de vivienda. El objetivo es facilitar el acceso a una vivienda a jóvenes (jóvenes de entre 18 y 35 años), personas con movilidad reducida y familias monomarentales y monoparentales, al mismo tiempo que se fomenta el mercado de la vivienda vacía en el municipio.

Las personas beneficiarias deberán cumplir varios requisitos, entre otros, estar empadronadas en Beasain durante al menos un año. Las solicitudes pueden presentarse presencialmente en IGunea (con cita previa) o a través del registro electrónico del Ayuntamiento hasta el 30 de septiembre.

Gazteentzako erosketa bonuak tokiko merkataritzan erabiltzeko

Beasaingo Udalak "Tokiko Merkataritzan Gazteen Kontsumoa Sustatzeko Bonuen Programa" jarri du abian. Ekimen honen bidez, udalak 18 eta 30 urte bitarteko gazteen kontsumoa bultzatu nahi du udalerriko saltokietan, eta aldi berean, tokiko merkataritza indartu.

Nork eska ditzake bonuak?

1996 eta 2008 urteen artean jaiotako gazteek (18-30 urte) eta Beasainen erroldatuta daudenek, gutxienez urtebeteko antzinasunarekin.

Bonuen ezaugarriak:

- Pertsona bakoitzak **gehienez 2 bonu** eros ditzake.
- Bonu bakoitzak **10 euro balio du** eta **20 euroko erosketa-ahalmena** ematen du, 5 euroko 4 zatitan banatuta.
- **Programara atxikitako edozein saltokitan** erabil daitezke.

Non eta noiz erosi?

Bonuak **iGunean** eros daitezke, **apirilaren 13, 14 eta 15ean, 12:00etatik 14:30era**.

Erabiltzeko epea: **2026ko uztailaren 31ra arte**.



Bonos-compra para jóvenes para consumir en el comercio local

El Ayuntamiento de Beasain ha puesto en marcha el "Programa de Bonos para Incentivar el Consumo de los Jóvenes en el Comercio Local" para el año 2026. Esta iniciativa busca fomentar el consumo de las personas jóvenes de 18 a 30 años en los establecimientos del municipio, dinamizando así el comercio local.

¿Quién puede adquirirlos? Personas nacidas entre 1996 y 2008 (18-30 años) que estén empadronadas en Beasain con una antigüedad mínima de un año.

Características de los bonos:

- Cada persona puede adquirir un **máximo de 2** bonos.
- Cada bono tiene un coste de 10 € y un valor de 20 € para gastar, dividido en 4 partes de 5 €.
- Se pueden utilizar en cualquier establecimiento adherido al programa.

¿Dónde y cuándo comprarlos?

En iGunea, los días 13, 14 y 15 de abril, de 12:00 a 14:30.

Plazo de uso: Hasta el 31 de julio de 2026.



101 urte Dionisia Larreak eta Carmen Castrodezak

Otsailaren 9an Dionisia Larreak eta otsailaren 14an Carmen Castrodezak, 101 bete zituzten. Udal agintariak beasaindar guztien izenean zoriondu zituzten.

Los 101 años de Dionisia Larrea y Carmen Castrodeza

El 9 de febrero Dionisia Larrea y el 14 de febrero Carmen Castrodez cumplieron respectivamente 101 años. recibieron la felicitación de todos y todas las beasaindarras en nombre de las autoridades municipales.



Galdarak eta leihoak berritzeko udal-laguntzak



Subvenciones municipales para renovar calderas y ventanas

Beasaingo Udalak etxebizitza eta eraikinetako energia-eraginkortasuna hobetzeko dirulaguntzak eskaintzen ditu. Helburua da energia-kontsumoa eta bero-galerak murriztea, etxebizitzak jasangarriago eta eraginkorrago bihurtuz.

NORK ESKA DEZAKE?

- Jabeen erkidegoak
- Banakako etxebizitza-jabeek (ohiko bizilekua dela eta bertan erroldatuta daudela egiaztatuta)

ZER LAGUNTZEN DA?

- Galdara zaharren ordezkapena
- Leiho eta ateetako beirazko itxituren berritzea

ZENBATEKO LAGUNTZAK

- Jabeen erkidegoak: **gastuaren %10 arte, gehienez 6.000 €**
- Banakako jabeak:
 - Galdara aldatzea: **400 €**
 - Leihoak/ateak berritzea: **gastuaren %30, gehienez 1.200 €**

EPEAK ETA AURREKONTUA

Diruz lagunduko dira **2025ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako eta 2026eko azaroaren 30a baino lehen amaitutako** lanak.

NON ESKATU?

Eskaerak eta informazio osoa: **Igunean** (Herriarrentzako Arreta eta Informazio Gunea). **943 028050 udala@beasain.eus**

El Ayuntamiento de Beasain ofrece ayudas para mejorar la eficiencia energética de viviendas y edificios, reduciendo el consumo y las pérdidas de calor.

BENEFICIARIOS

- Comunidades de propietarios
- Propietarios individuales (empadronados en la vivienda habitual)

CUANTÍAS

- Comunidades: **hasta el 10% del gasto, máximo 6.000 €**
- Propietarios individuales:
 - Cambio de caldera: **400 €**
 - Ventanas/puertas acristaladas: **30% del gasto, máximo 1.200 €**

PLAZO

Actuaciones realizadas entre el **01/01/2025 y el 30/11/2026.**

Información y solicitudes: En **Igunea** (Servicio de Atención e Información Ciudadana). **943 028050 udala@beasain.eus**



Informazio
gehiago hemen
Para más
información

**Etxebizitzen birgaitze energetikoa
urrats garrantzitsua da jasangarritasunean
eta bizi-kalitatean aurrera egiteko.**